# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2039

*AGINDUA, 2013ko martxoaren 27koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Rosa M.ª Sánchez Villar andreak Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xedatzen duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau.

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Rosa M.ª Sánchez Villar andreak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola, egindako lanagatik eskerrak emanez. Lanpostuaren kodea: 520010; dotazioa: 148; DO maila: 18; berariazko osagarria: VI-A.

Bigarrena.– Kargu-uzte honek 2013ko apirilaren 8tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du; hala ere, bere aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio agindua eman duen organoari. Horretarako epea jakinarazpena egin eta hurrengo egunean hasi eta hilabetekoa izango da. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Vitoria-Gasteizko Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 27a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.